

Bidegik 7 milioiko inbertsioa egingo du AP-8, AP-1 eta GI-20 errepideetako zoruen 21,6 kilometro birgaitzeko

18 zati berrituko dira eta 24 hilabeteko gauzatzeko epea izango dute lanek



Bidegi foru erakundeak AP-8 eta AP-1 autobideetako eta GI-20 errepideko 18 zatietako errodadura-geruza berritzeko proiektuaren lizitazioa onartu du. Aurrekontua 7.121.253 eurokoa da, gehi BEZa eta gauzatzeko epea 24 hilabetekoa izango da, esleitzen denetik aurrera.

Proiektuak batez ere AP-8 autobideari eragiten dio, 18 zati birgaituko baitira. AP-1ean eta GI-20 errepidean bi zati berrituko dira bakoitzean, eta AP-1eko 133. irteera-adarrean ere jardungo da, Bergaran. Guztira 21,6 km linealeko zorua berrituko da, horietatik 5,2 km Bilbo eta Gasteiz norankoetan eta 16,4 km Behobia norabidean. Berrituko diren tarteen luzera 407 metrotik 2,7 km-ra bitartekoa izango da. Horietatik hamabi zati kilometro 1 baino gehiagoko luzerakoak izango dira.

AP-8an berrituko diren hamahiru zatiak Getariako 42,710 kilometro-puntuaren eta Eibarko 70,908 kilometro-puntuaren artean kokatzen dira. Horrela, Zumaia-Getaria terminoetan, Urolako zubibidearen eta Meagasko tunelaren arteko tartea berrituko da (43,816 eta 42,710 km-ak) Behobia noranzkoan. Zestoako ordainlekuaren parean eta halaber, Behobia noranzkoan, beste bi zati berrituko dira, guztira 2,7 km-ko luzerarekin. Deba eta Mendaro artean, hau bi norabideetan eta sei zatitan banatuta autobideko 9km birgaituko dira, Lizaranzuko zubibidea eta Istiñako tunela barne. Elgoibarren, San Antolingo zubibidearen parean, kilometro bateko luzerako zorua berrituko da Behobia noranzkoan, eta ia beste 600 metro Bilbo noranzkoan. Azkenik, Eibarren, 1,1 km-ko erreia berrituko da Behobiarako noranzkoan.

AP-1ean, zorua berritzeak autobidearen enborreko bi zatiri eragingo die Bergaran, Gasteizerako noranzkoan, eta autobidetik herri bererako irteera-adarrari.



Erabateko birgaitzea 3,8 km-ko asfalto luzerari eragingo dio. Azkenik, GI-20 errepidean, Donostia parean, bi zati berrituko dira, noranzko bakoitzean bana, 2 km-ko luzerarekin.

Halaber, birgaitzeak eragiten dien egituretan dilatazio-junturak aldatuko dira eta zirkulazio-dukierarako espirak berrituko dira.

Bide-zatiak birgaitzeak erabat operatiboak diren eta trafiko-intentsitate handia duten bideei eragingo dienez, zenbait neurri hartuko dira, trafikoan sortu daitezken eraginak ahalik eta txikienak izan daitezzen. Horrela, astelehenetik ostiralera, AP-8an eta GI-20an beharrezkoak diren errei-mozketak 11:00etatik aurrera egingo dira zati batzuetan eta gauez beste batzuetan, goizeko puntako orduak saihestuz. By-pass bidezko desbideratzeak asteburuetan egingo dira. AP-1ean ez da mugarik egongo mozketak eta desbideratzeak egiteko. Uztailean, abuztuan eta irailaren erdialdera arte, aste barruan ezin izango da inolako lanik egin zati batzuetan, eta beste batzuetan gauez egingo da, oporren eta irteera eta itzulera operazioen ondorioz trafikoak gora egiten duen egunak baitira. Beti ere mozketak aurrez ohartaraziko dira.

Zarautz, 2023/03/06

Bidegi invertirá 7,1 millones en la renovación del firme de 21,6 km de la AP-8, AP-1 y GI-20

Se renovarán 18 tramos y el plazo de ejecución será de 24 meses



El Consejo de Administración de Bidegi ha aprobado sacar a licitación el proyecto de renovación de la capa de rodadura de 18 tramos de las autopistas AP-8 y AP-1 y de la carretera GI-20. El presupuesto es de 7.121.253 euros más IVA y el plazo de ejecución será de 24 meses desde su adjudicación.

El proyecto afecta sobre todo a la autopista AP-8 en la que se rehabilitarán 18 tramos. En la AP-1 y en la GI-20 se renovarán dos tramos en cada una y también se actuará en el ramal de salida 133 de la AP-1 en Bergara. En total se renovarán 21,6 km lineales de firme de los cuales 5,2kms serán en sentido Bilbao y Vitoria Gasteiz y 16,4 km en dirección Behobia. Los tramos que se van a renovar varían en longitud, desde los 407 metros hasta los 2,7 km. Doce de ellos serán de más de 1 km.

Los trece tramos de la AP-8 en las que se actuará están entre el PK 42,710 de Getaria y el 70,908 de Eibar. En los términos de Zumaia-Getaria se renovará el tramo comprendido entre el viaducto del Urola y el túnel de Meagas (PK 43,816 y 42,710) sentido Behobia. A la altura del peaje de Zestoa y también en sentido Behobia se renovarán otros dos tramos con una longitud total de 2,7 kms. Entre Deba y Mendaro y en ambas direcciones se rehabilitarán 9km de autopista divididos en seis tramos y que comprenden estructuras como el viaducto de Lizaranzu o el túnel de Istiña. En Elgoibar, a la altura del viaducto de San Antolín se renovará 1 km de firme en sentido Behobia y otros casi 600 metros en sentido Bilbao. Por último, en Eibar, se rehabilitará 1,1 km de carril dirección Behobia.

En la AP-1 la renovación del firme afectará a dos tramos del tronco de la autopista en Bergara en sentido Vitoria-Gasteiz y al ramal de salida de la autopista al mismo municipio. La rehabilitación total alcanzará los 3,8km de asfalto. Por último, en



la carretera GI-20, a la altura de Donostia se renovarán dos tramos, uno en cada sentido, con una longitud de 2kms.

En las estructuras que se vean afectadas por la rehabilitación se cambiarán las juntas de dilatación y se repondrán las espiras para el aforo de tráfico.

Dado que la rehabilitación de los tramos afectará a vías plenamente operativas y con gran intensidad de tráfico su ejecución estará sujeta a una serie de medidas para minimizar las afecciones. Así, de lunes a viernes, los cortes de carril que sean necesarios en la AP-8 y en la GI-20 se harán después de las 11:00 horas en algunos tramos y en horario nocturno en otros, evitando las horas punta de la mañana. Los desvíos mediante by-pass se ejecutarán en fines de semana. En la AP-1 no habrá limitación para los cortes y desvíos. Durante los meses de julio, agosto y hasta mediados de septiembre, entre semana no se podrá hacer ningún trabajo en determinados tramos y en otros se trabajará de noche, al ser días que registran un incremento del tráfico debido a las vacaciones y a las operaciones salida y retorno. Todos los cortes y desvíos se anunciarán con antelación.

Zarautz, 2023/03/06